



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Espediente zkoa. 024/001772

Pasaia, 2024ko abenduaren 9a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela **AZTIk duen Pasaiko egoitzan ekipamendu teknologia hornitzeko kontratazioa eskuratzeko.**

2. ENTREGATZEA ETA ABIARAZTEA

Ekipoa entregatzea eta martxan jartzea, edifizioko obren bukaeratik hasita **gehienez ere 15 egunetako epean** kudeatuko dira. Lizitazioaren xedea hornitzeko zentroko obrak amaitzeko aurrikusitako eguna martxoaren 15a da.

Ekipamenturako entregatze data, instalazio eta montaketa lanen iraupena ere sartuko da.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa da **ehun eta hirurogeita zortzi mila euro (168.000€)**, zergak barne hartu gabe.

Prezian sartuta daude hornidura eta instalazioarako beharrezko diren kostu guztiak: transporte, karga, deskarga, muntaia, instalazioa, funtzionamenduan jartzea, enbalajea kentzea, etb...

Lizitatuzaileek, efektu guzietarako aurrekontu osoa aurkeztu beharko dute. Hornidura eta instalazioaren zenbateko guztiaz gain, baita ere gastu ezberdin guztien zenbatekoa: zergak, aseguroak,...kontzeptu bakoitzari dagokion BEZa mota ondo zeaztuta.

Horniduraren epea emanda ez da onartuko prezioaren berrikuspenarik.

Adjudikatzailerak eskaera honen entrega eta instalazio zuzen bat egin ondoren fakturatuko digu, faktura bakarrean eta mantenuko arduradunak onartutako albaran ezberdinak aurkeztuz.

Fakturazioa lizitazio honen xedea burutzean egingo da, eta faktura jaulkitze-dataren ondorengo 60 egunetan ordainduko da.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%70
Doitasun teknikoa	%15
45001 ziurtapena	%5
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5
Berdintasun Plana	%5

Eskaintza ekonomikoaren puntuaketa honako formulari jarraituko zaio, eskaintza bajeuari puntuaketa maximoa emanez:

$$\frac{\text{Eskaintza bajeuna} \times 75}{\text{Aurkezten den eskaintza}}$$

Lizitzailearen eskaintza onenak lortutako puntuaketa maximoa bestetik asko alderatzen bada, lizitzaileari azalpenak eskatuko zaizkio.

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitzaileek beraien eskaintzak honako bi helbide elektronikora aurkeztu beharko dituzte: licitaciones@azti.es eta alizaso@azti.es edo AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2025ko Urtarrilaren 8ko 12:00ak arte**.

Lizitzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

AZTI

Norentzat: Iosu Lizaso Saizar

Tel. 34 667 174 372

Mail: ilizaso@azti.es

Lizitzaileak aurkezten duen eskeintzan honako puntuak jaso behar dira:

- Proiektuaren plan zeatza, eginkizunen zeaztapenak eta epeak.
- Proiektuari dagokion langileen zerrenda, bakoitzaren curriculum eta ziurtagiri ofizialak.
- Proiektuaren dokumentazioa, ekipo osoaren parte hartzearen erabakiekin eta gune bakoitzeko elementuen deskribapenarekin.
- Fabrikanteen garantiak eta mantenuko zerbitzuak eskeintzen diren deskripzio zehatza.
- Gune bakoitzeko baldintza tekniko ezberdinak.
- Proiektua ulertzeko eskemak.
- Gune ezberdin bakoitzeko eskeintzen den prezioa banatuta. Instalazioa, abian jartzea, formakuntza, soportea edo eta beharrezko edozein kontzeptuen banaketa ondo azalduta eskatzen da.

Lizitzaileek, eskeintza aurkeztu aurretik, Pasaiko Azti egoitza bisitatu dezakete aurretiaz mantenuko buruarekin hitzordua eskatuz.

Ez da onartuko lizitazio honetan zeaztu den zenbatekotik gora, ezta ere Azpikontratazioan eta hainbat gai ezberdinetan (gizarte, laboral, ingurumen, hitzarmen kolektibo,...) obligazio legalak urratzen dituzten eskeintzarik. Ezta ere, finkatu den prezioetik oso behera den zenbatekorik ez badago ongi azalduta. Onartutako eskeintzen media aritmetikotik %20ko zenbatekorik beherakoak desproporzionak kontsideratuko da.

Lizitzaile baten kanporatzea erabakitzen bada, AZTIk lizitzaileari expreski komunikatuko dio.

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Dokumentaziorako, hautatutako erakundeak, www.azti.es webgunean argitaratutako Kontratazioari buruzko Barne-Araudia bete beharko du.
 - i. Esleipendunaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko agiriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko edo Estatuko Kontratisten Erregistro Ofizialean erregistraturik dauden lizitatzaleei inskripzio ziurtagiria eskatuko zaie. Eta ziurtagiri honekin batera erantzukizunpeko adierazpen sinatuan non adieraziko den egoerak ez direla aldatu.
 - ii. Ekonomia eta Finantza kaudimena egiaztatzeko agiriak. Merkataritza Erregistro gordailuan onartu diren urteko kontuak aurkeztuko dira.
 - iii. Kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzen duten agiriak. Hala nola, azkenengo 3 urtetan egindako lanen zerrenda, zenbatekoak, datak, eta bezeroaren datuak. Eskumena dutenek ziurtagari bidez egiaztatuko dituzte egindako lanak.

- iv. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatearen egiaztagiria.
- v. AZTIko hornitzaileen jokabide-kodea betetzen duela ziurtatzen duen agiria (www.azti.es web orritik deskargatu daiteke).
- vi. Esleipendunari emango zaion ereduaren arabera, LCSPren 71.artikuluari ezarritako kontratatzekeo debekuetako bat ere ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena.
- vii. Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotearen frogagarria eta zerga hori ordaindu izanaren dokumentua.

- Hornitu beharreko ekipamendua eta altzariak AZTIk Pasaian duen zentroan entregatu beharko dira: Herrera Kaia, Portualdea z/g 20110 Pasaia – Gipuzkoa (aurrerantzean, zentroa).
- Zentruan entregatu eta muntatzen den egunetik aurrera, ekipamenduaren bermealdia eta mantentze lanak hasiko dira. Kontsumo gaitan indarrean dagoen araudia aplikatzearen erantzuna izango da.

Esleipendunari dagokio hornitutako ondasunak konpontzeko erantzukizuna, berezko akatsen kasuan eta berme epearen barruan; beraz, bitarte horretan, konponketa kostua, ordezkoko piezak, eskulana, joan etorriak, etb ... ez du inolako kosturik izango AZTIrentzat.

Bermearen bidez, esleipendunak ondasuna konpontzeko konpromisoa hartuko du, baldin eta akatsa ez bada higadurei, erabilera okerrari edo ohiko zahartzeari egozten.

- Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik horniketa epe partzialak edo osoak ez betetzeak, formalki jakinarazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik, asteko 5%eko penalizazioa ekarriko du.

Epeak ez betetzeagatik eskaera bat baliogabetzeko erreserba idatziz jakinarazi behar dio AZTIk esleipendunari, eta bost eguneko epea eman behar dio bere defentsarako nahi duena alega dezan. AZTIk ere bost eguneko epean emango du bere ebazpena.

Goian xedatutakoa ulertuko da ezertan eragotzi gabe, adjudikaziodunak kontratua ez betetzearen ondorioz sor litezkeen kalte-galeren ordainak.

- Esleipendunak bere gain hartu beharko du kontratua gauzatzean sortutako hondakinak biltzeko ardura. Halaber, bilgarri eta ontzi hutsak kendu egin beharko ditu, dagozkion edukiontzietan edo dagozkion garbigune edo hondakinak kudeatzeko

beste sistema baimendu batean. Kontratuaren indarraldi osoan, esleipendunak bilketa eta gordailua egin izana erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatzea eskatu ahal izango zaio.

- Baldintza teknikoek eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

- Ekipoak edo makinak legeria aplikagarrian ezarritako baldintzak bete beharko ditu, eta honako hauek hartu beharko ditu erreferentziatzat:
 - ✓ 1644/2008 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, makinak merkaturatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzen dituena.
 - ✓ 1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, langileek lan-ekipoak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.

1644/2008 ERREGE DEKRETUA NAHITAEZ BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Hornitutako ekipoak/makinak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 41. artikuluan eta 1644/2008 Errege Dekretuan makinei buruzko estatu kideen legeriak hurbiltzeari buruz adierazitako baldintzak bete behar ditu. Honako hau eduki behar du:

- CE marka.
- CE adostasun-adierazpena.
- Fabrikatzailearen izena eta helbidea
- Makinaren identifikazioa
- Makina zer xedapenetara egokitzen den
- Hala badagokio, jakinarazitako erakundea eta gaztelaniaz idatzitako CE motako azterketa
- Argibide-liburua gaztelaniaz.
- Instalazioa
- Zerbitzuan jartzea
- Erabilera



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- Mantentze-lanak, etab.
- Gaztelaniaz idatzita

Ekipoa/makina dagokion dokumentaziorik gabe jasotzen bada, ekipoa baztertu eta itzuli egingo da, eta Industriako dagokion Lurralde Bulegoari jakinarazi beharko zaio.

Ezarritako legezko baldintzak betetzen ez badira, eskaera eta egindako eskurapenak balio gabetu ahal izango dira.

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeke eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

Baldintza teknikoak jasotzeko, proposamen bat aurkeztu nahi dutenek konfidentzialtasun-akordio bat sinatu beharko dute. Akordio hori posta elektronikoz eskatu beharko dute hurrengo bi helbideetara, gaian beti espedientearen zenbakia adieraziz.

- licitaciones@azti.es
- alizaso@azti.es

Konfidentzialtasun-akordioa eta lizitazio honen baldintza teknikoak eskatzeko azken eguna 2024ko abenduaren 16a 12:00ak baino lehen izango da.

10. BESTE BATZUK

- Esleipendunak (erakunde juridikoa, erakunde juridikoen elkartea, pertsona indibidualak, pertsonen elkartea...), baita lizitazioari erantzuteko edo lizitazioaren xedea betetzeko parte hartzen duten beste erakundeek edo pertsonak ere, hautagaitza aurkeztu duten edo ez alde batera utzita, konpromisoa hartzen dute lortutako informazioaren konfidentzialtasuna gorde eta mantentzeko eta sekretu profesionala gordetzeko, eta, beraz, ezagutzen eta lortzen duten informazioa ez diete parte hartu ez duten langileei edo hirugarrenei erakutsi, jakinarazi edo ezagutaraziko.
- Informazio konfidentzialtzat jotzen da esleipendunak eta/edo AZTI Fundaziotik kanpoko erakunde edo pertsonak, lizitazioari erantzuteko edo kontratua gauzatzeko, modu bisualean, ahoz, zuzenean edo zeharka, lortzen duten edozein informazio, besteak beste, informazio zientifiko, tekniko, finantzario, legal, fiskal eta komertziala, negozio eredu eta estrategiak, “*know-how*”, bezero eta bazkide posibleen izenak, proposatutako edo azterketa fasean dauden edonolako proiektuak eta eragiketak, datuak, algoritmoak, txostenak, planoak, merkatuko proiektzioak, laneko analisiak eta dokumentuak, bildumak, konparazioak, azterketak eta, oro har, eskuratutako informazio guztia, bai kontratua gauzatu aurretik lortutakoa, bai ondorengoa.
- Konfidentzialtasun betebeharrak eta informazio konfidentziala ez erabiltzeko betebeharrak indarrean jarraituko dute informazio konfidentziala jende guztiak dakien gauza ez den bitartean, eta egoera hori ez da izan behar informazio konfidentziala eskuratu duten esleipendunak eta/edo erakunde edo pertsonak beren betebeharrak bete ez izanaren ondorio.
- Esleipendunari dagokionez, kontratua amaitu aurretik, bitartean edo ondoren eskuratu duen informazio konfidentziala isilpean gordetzeko eta ez erabiltzeko betebeharra ez da iraungiko kontratua betetzen denean. Esleipendunak kontratua gauzatzean, modu independentean edo AZTIrekin batera, lortutako edo sortutako informazio konfidentziala (lortutako emaitzak) edo horren zati bat bakarrik erabili ahal izango du kontratu hau garatzeko, eta ez du beste erabilerarik egingo.

Esleipendunak modu erreserbatuan erabiliko du informazio konfidentziala eta ez du zabalduko ez jakinaraziko, eta esleipendunarekin duten harremanagatik, informazio hori eskura eduki dezaketean edo eduki behar duten bere langileei, bazkideei,

azpikontratatupei eta beste edozeini informazioa eskuratzeko sarbidea murriztu beharko die, konfidentziasuna betetzeko beharra dutela ohartarazita. Esleipendunaren langileek, bazkideek, azpikontratatuak edo hark emanda informazio konfidentzialaren berri izan duten pertsonak betebeharrak hori betetzen ez badute, esleipenduna izango da erantzulea.

Nolanahi ere, erabat debekatuta dago kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta ez dauden informazio, datu eta dokumentuetara sartzea, eta nahitaezkoa da ezagutzen direnak isilpean gordetzea.

Esleipendunak ezin izango du Informazio Konfidentziala erabili, ez zuzenean, ez hirugarrenen bidez: a) edozein eragiketa komertzialetan hasi, eskaini, negoziatu, kontratatu edo sartzeko, edo horrekin lor daitekeen edozein onura lortzeko b) produktuak, soluzioak, zerbitzuak eta know-howa garatu eta, hala badagokio, teknikoki hobetzeko c) patenteen bidez, erabilgarritasun modeloen edo jabetza intelektual eta industrialaren babesteko beste edozein sistemaren bidez, produktuak, soluzioak, metodoak eta abar babesteko.,

- Lizitazio honen kontratua gauzatzearen ondorioz esleipendunak edo horrek eskatuta diharduen beste edozein pertsona fisiko edo juridikok –laneko lotura izan edo ez– lortutako emaitzen gaineko eskubide guztiak AZTI Fundazioaren titulartasunpekoak eta bakarrik horren menpekoak izango dira, muga geografikorik edo denborazko mugarik gabe, emaitzatzen hauek hartuta: produktuak (letra tipoen kodea, algoritmoa, softwarea, hardwarea, plataforma digitala, aplikazioak, etab.), zerbitzua (kontsultoretza, aholkularitza, digitalak, etab.), dokumentazio tekniko edozein formatutan (txostenak, fluxu diagramak, datuak, etab.), soluzioak (digitalak, software plataforma, programak, aplikazioak, etab.) eta/edo informazioa, horien aterakinak edo erreplikak barne. Emaitzen, sortutako ezagutzaren edo sor daitekeen edozein jabetza intelektual edo industrialaren edozein erregistroaren gaineko ustiapen eskubideak eta jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak (adibidez, patenteak, etab.) eta/edo horien ondoriozko emaitzen, ezagutzaren edo jabetza intelektual edo industrialaren erregistroaren gainekoak AZTI Fundazioarenak izango dira, eta, beraz, edozein aktibo ukigarri eta ukiezinen ustiapena, edozein dela ere horren forma edo izaera, babestuta egon edo ez, baita horien ondoriozko eskubide guztiak ere, AZTI Fundazioarenak izango dira.

Esleipendunak, eta, hala badagokio, bertako langileek, jabetza intelektualaren eskubideei, emaitzei, sortutako ezagutzari edo sor daitekeen jabetza intelektualaren edo industrialaren edozein erregistroari (adibidez, patenteak, etab.) eta/edo aurrekoen ondoriozko jabetza intelektualaren edo industrialaren emaitzei, ezagutzari edo erregistroari dagokienez, jabetza intelektualaren eskubideen lagapena egingo dio AZTIri, eta hark lagapena onartuko du, honela:

- Lagapen eskusiboa eta doakoa.

- Lagatzen diren ustiapen-eskubideak erreproduzio-, banaketa-, komunikazio publiko- eta eraldaketa-eskubideak dira, egun dauden eta ezagutzen diren ustiapen-modalitateetako edozeinetan.
 - Lagapenaren denbora-eremua: Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean aurreikusitako gehieneko iraupena, hau da, jabari publikora igarotzen den arte.
 - Lurralde-eremua: ustiapen-eskubideen lagapena munduko herrialde guztietara hedatzen da.
- Esleipendunak ezin izango du AZTI Fundazioak emaitzen gaineko edozein eskubide eratorri babestearen aurka egin, eta ezin izango du emaitzarik zabaldu edo argitaratu, salbu eta AZTI Fundazioak baimen idatzia ematen badu eta baimen horren baldintzak betez. AZTI Fundazioak edozein erregistro bulegotan emaitzak babestea edo erregistratzea erabakitzen badu, egileen egiletza aitortuko da, bai AZTI Fundaziokoak badira, bai enpresa esleipendunekoak badira, baldin eta erregistratutako garapenean parte hartu badute.
 - AZTI Fundazioak eskubidea izango du emaitzak aldatu, transferitu, entregatu, banatu edo hirugarrenei banatzeko, helburu komertzialekin edo ez, edo behar duen edozein jarduera egiteko. Halaber, esleipendunak AZTI Fundazioari emaitza osoak eman beharko dizkio (adibidez, letra tipoaren kodea, etab.), eta AZTIk, horien jabe den aldetik, zuzenean edo hirugarrenen bidez, emaitzetan oinarritutako lan eratorriak sustatu ahal izango ditu, eta hobekuntzak eta hortik eratorritakok AZTIren jabetza eskusiboa izango dira.
 - Esleipendunak aitortzen du, kontratua gauzatu aurretik, AZTI Fundazioa hauen jabe dela: produktuaren edo soluzioaren ideia eta kontzeptua/prototipoa, produktuak edo soluzioak izan behar duen funtzionaltasunaren, eraginkortasunaren eta interkonektibitatearen diseinua, datuak (datu motak, jatorria, kudeaketa eta tratamendua, etab.) eta know-howa (AZTI Fundazioaren aurretiazko ezagutza). Horrela, AZTI Fundazioak, aurretiazko ezagutzaren eta emaitzen titularra den aldetik, zuzenean edo zeharka ustiatu ahal izango ditu, berak iritzi bezala.
 - Esleipendunak ezin izango ditu, bere kabuz edo hirugarrenen bidez, emaitzak ezein pertsona fisiko edo juridikori transferitu, bitarteko elektronikoen bidez edo beste modu batean, eta ezin izango ditu emaitzak aldatu, itzuli, alderantzizko ingeniariak aplikatu, deskonpilatu, saldu, transferitu, azpilizentziatu, argitaratu, zabaldu edo kontratua gauzatzean lortutako emaitzetan oinarritutako lan eratorririk sortu. Esleipendunak, beraz, ezin izango du AZTI Fundazioaren negozio estrategia mugatu dezaketen emaitza lehiakorak (produktuak, soluzioak, zerbitzuak, dokumentazio teknikoa) merkatura eramateko ekintzarik egin.
 - Emaitzak erabiltzeko beharrezkoa denean (adibidez, letra tipoaren kodea, softwarea, aplikazioak, etab.), esleipendunak kontratu honen aurretiko ezagutzaren lizentzia ez-esklusiboa eta besterenezina emango dio AZTI Fundazioari, lizitazioan ezarritakoaren gaineko gainkosturik gabe. Kontratua amaitzean entregatutako



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

emaitzak (produktuak, soluzioak...) guztiz funtzionalak, operatiboak eta beste batzuekiko independenteak izan behar dira, eta ez dute inolako mugarik ekarriko emaitzen erabilerari dagokionez, ezta erabiltzeko kostu gehigarriak ere.

- Lizitazio honetan informazio konfidentzialaren konfidentzialtasunari eta ez erabiltzeari buruz ezarritako baldintza guztiak, baita jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideei eta emaitzen eta sortutako ezagutzaren gaineko ustiapen eskubideei dagokienez ezarritakoak ere, gailendu egingo dira erakunde esleipendunarekin ondoren sinatzen den eta lizitazio honetan ezarritako baldintzekin gatazkan egon daitekeen edozein akordioaren gainetik.
- Esleipendunak onartzen du AZTI Fundazioaren izenaren edo deituraren titulartasuna eta merkatuan dituen produktu edo zerbitzuen bereizgarri diren zeinu bereizgarri guztiena AZTI Fundazioarenak direla eta hala izaten jarraituko dutela. Esleipendunak ez du inolako ekintzarik egingo, ezta AZTI Fundazioaren zeinu bereizgarrien baliozkotasunari eragin diezaiokeen neurririk hartuko ere, eta konpromisoa hartzen du ez erregistratzeko edo eskatzeko, ez bere izenean ez hirugarren baten alde, AZTI Fundazioaren izen komertzial, domeinu izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarriak edo horien antzekorik, baldin eta AZTI Fundazioaren jarduera, prestazio, produktu edo establezimenduarekin nahasmendurik sor badezakete.